

HIZKUNTZEN INDUSTRIAREN ERRONKA BERRIAK

Josu Waliño - Elhuyar Fundazioa

Gizarte eleanitz batean bizi gara. Euskal Herrian hiru hizkuntza ofizial ditugu (Euskara, Gaztelania eta Frantsesa) eta laugarren bat ere (Ingelesa) gero eta barneratuago dago. Eleaniztasuna globalizazioaren eragin zuzena bilakatzen ari den garaian, esparru industrial bezala gero eta aukera gehiago zabaltzen dira.

Euskal Herriaren izaera eleanitza medio, Hizkuntzen Industria gure gizartean erabat errotuta dagoen sektore ekonomikoa da. Itzulpengintza, hizkuntzen irakaskuntza edo hizkuntza teknologiatan aritzen diren enpresak ugariak dira gure herrian nahiz eta sektore bezala egitura baten faltan egon. Hizkuntzen Industria deitzen dugun hori kasu askotan atomizatuta dagoela ere esan daiteke baina, horregatik ezin esan merkatuan indarririk ez duenik. Ildo honetan, modu soltean egiten da lana Euskal Herrian hizkuntzen arlo desberdinetan, baina elkarlana eta sektore kontzientzia landu gabe.

Hizkuntzen Industriaren mapa eratu nahi bagenu, Euskal Herrian honelako zerbait irudika genezake:



Abiapuntu honetan ikus daiteke lau zutabe nagusiz osatzen dela Hizkuntzen Industria, horietako bat transbersala delarik: Hizkuntza Teknologiai. Azken honek, beste hiru zutabeak teknologiaz hornitzen ditu eta, beraz, sektore guztiari eragiten dio, Berrikuntzaren ardatza ezarriz.

Europa eleanitz batean eta mundu globalizatu batean, euskaldunok dugun koiantura soziolinguistikoa aukera bilakatzen jakin behar dugu merkatu esparru berriak zabaltzeko. Horretarako bi dira ardatz nagusiak:

- **Sektorearen egituratzea.** Hizkuntzen Industria sektore ekonomiko bezala duen pisua aztertu eta sektorea erronka berriei aurre egiteko moduan egituratu eta antolatzea.
- **Berrikuntza.** Hizkuntza Teknologia sektore guztiarentzat transbersala izanik, berrikuntza da sektorearen arrakastaren faktore nagusia.

Gurearen antzeko egoera bizi duten herri batzuek hartu dituzte neurriak, eta sektorea indartzearen aldeko estrategia landu dute. Esaterako, Kanadan, Quebec-eko gobernuak 4 milioi dolar inbertitu ditu Quebec-eko Unibertsitateak Outaouais-en duen campusean hizkuntza-teknologia garatuko duen zentro bat sortzeko. Outaouais delakoa Quebec-en mendebaldeko eskualde bat da. Bertan dagoen Gatineau izeneko hirian azken urteotan 80 enpresa ari dira lanean hizkuntzarekin zerikusia duten jardueratan. Quebec-eko garapen ekonomikorako ministro Raymond Bachand-ek esan du helburua Outaouais eskualdea 2020rako mundu-mailan itzulpen-teknologian liderra izatea dela. (ikus: www.crti-ltrc.ca/fr eta www.ailia.ca/tiki-index.php)

Kanadaren egoera soziokulturala Euskal Herriaren antzekoa da: hau da, gizarte eleanitz baten abantaila konpetitiboaz baliatzen ari dira Industria sektore garrantzitsu bat indartu eta bultzatzeko. Antzera jokatu genezake guk Euskal Herri mailan.

Esan bezala, Europa eleanitz batean Euskal Herriak posizio ezin hobea du merkatu eta erronka berriei aurre egiteko. Hizkuntzen Industriaren sektorea, merkatu lokaletik merkatu globalera zabaltzeko aukera dago, baina horretarako erronka berriei egin behar zaie aurre.

Abiapuntu hau hartuta, sektoreko ordezkari nagusiak elkartu dira Gipuzkoa Berritzen-en gidaritzapean etorkizunari begira Hizkuntzen Industriaren sektoreak dituen erronka nagusiak aztertzeko. Zehazki honako puntuak garatu dira:

- Sektorearen errealitatearen analisi kualitatibo eta kuantitatiboa egitea: fakturazio-bolumena, enpresa-kopurua eta tipologia, langile-kopurua, I+G+B jarduerak, etab.
- Sektoreak mundu mailan duen egoeraren azterketa: ereduak ezagutzea (Kanada, Herbehereak, Irlanda), hizkuntzen industriak duen pisua munduko eta Europako ekonomian ezagutzea, etab.
- Hizkuntzen industriak 2015eko Euskal Herrian prospektiba-lana garatzea eta merkatu globalaren garapenaren aurreikuspena.
- Sektorea bultzatzeko administrazioetik eta sektoretik hartu beharreko politika eraginkorren definizioa.

Atariko hau bukatzeko azpimarratu behar da informazio- eta komunikazio-teknologia berriek baliabide teknologiko egokiak eskaintzen dituztela kultur eta hizkuntza dibertsitatea kudeatzeko eta zaintzeko eta aldi berean harreman ekonomikoak eta komertzialak errazteko. Hortaz, arerio ez eta hizkuntza dibertsitatearen lagun

bihurtu dira eta industria-sektore berri baten hazi bihurtu dira: hizkuntzen industriaren sektorearena hain justu.